



**ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkurako akta • 2003/12/29

## **A K T A**

# **Udalbatzarraren ohiko bilkura**

**EGUNA:** 2003ko abenduaren 29a.

**LEKUA:** Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

**DEIALDIA:** Lehena    **HASIERA-ORDUA:** 20:00    **AMAIERA-ORDUA:** 20:40

**BERTARATUAK:**    **Alkatea funtziotan**  
Eneko Olariaga Arruti

**Zinegotziak**

Eugenio Cotado Iturain, Noemi Ostolaza Arkauz, Andoni  
Sarasua Oliden, Maria Elena Legarra Alfaro, M. Jose San  
Sebastian Aranburu, Ramon Etxeberria Aldaz, Martxiel  
Genoba Solaberrieta, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose  
Rodriguez Pousa.

**Idazkari-Kontuhartzailea**

Jon Carrera Jauregi

**BERTARATU EZ DIRENAK:** Mirari Arruabarrena Elizalde, herritik kanpo dagoelako.

### **Aztergai zerrenda**

- 1.- Onartzea, egoki bada, Udalbatzarrak 2003ko azaroaren 25ean egindako ohiko bilkurako akta.
- 2.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko Hondartzako eskuhartze urbanistikorako areako 3.1 exekuzio unitateko Udal jabetzako partzelak besterentzea, lehiaketa publiko bidez.



## ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkurako akta • 2003/12/29

- 3.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko Hondartzako eskuhartze urbanistikorako areako (AIU) urbanizazio lanak zuzendu eta ikuskatzeko aholkularitza eta laguntza teknikoa, segurtasun eta osasuneko azterketa eta kalitate kontroleko programaren kontratua.
- 4.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziari.
- 5.- Berrestea, egoki bada, Orioko Udaleko hiru ordezkarien izendapena UEMako Batzar Nagusirako.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orioko Euskara Biziberritzeko Plana (2003-2006).
- 7.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udaleko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.
- 8.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, LKS enpresak egindako Lanpostuen balorazioa eta funtzioen eskuliburua.
- 9.- Bat egitea, egoki bada, Turismo Bulegoen Euskal Sarearekin (ITOURBASK).
- 10.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 8/2003 zenbakidun Kreditu Aldaketako Espedienteari. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kredituen transferentzia.
- 11.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren 2004ko Aurrekontu Orokorraren Proiektua.
- 12.- Onartzea, egoki bada, Udaleko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda 2004rako.
- 13.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

### **1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2003KO AZAROAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

**ONARTZEA** Udalbatzarrak 2003ko azaroaren 25ean egindako ohiko bilkurako akta.



## **2.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HONDARTZAKO ESKUHARTZE URBANISTIKORAKO AREAKO 3.1 EXEKUZIO UNITATEKO UDAL JABETZAKO PARTZELAK BESTERENTZEA, LEHIAKETA PUBLIKO BIDEZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Lehiaketa publikoaren oinarriak 2003ko uztailaren 28ko 141. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira, eta lehiaketa publikoko epean zazpi lehiakide aurkeztu dira:

DESARROLLO Y EDIFICACIONES MENDIBIL, S.L.

ORAUNE PROMOCIONES, S.L.

INMOBILIARIA DE ORIO TXOKO TXIKI, S.L.

CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK, S.A.

GAILUR DONOSTI, S.L.

PROMOCIONES ANDUTZ-MENDI, S.L.; PIRINEO 2010, S.L.

LARRAIN, S.A.; ITESA SERVICIOS INMOBILIARIOS, S.A; CONSTRUCCIONES MURIAS, S.A.

Kontratazio mahaiak proposatu du aipatutako udal jabetzapeko partzelak besterentzeko kontratua honako honi adjudikatzea: Juan Antonio Olaia Garciari, DESARROLLO Y EDIFICACIONES MENDIBIL SLren izenean, berea baita puntuaziorik altuena lortu duen proposamena, baldintza ekonomiko-administratiboen pleguaren 10. artikulua ezarritako adjudikazio irizpideen arabera.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, kontratazio mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

**1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA** 2003ko irailaren 29an egindako plikak irekitzeko ekintza.

2.- Juan Antonio Olaia Garciari, DESARROLLO Y EDIFICACIONES MENDIBIL SL Merkataritza Entitatearen izenean, **BEHIN BETIKOZ ADJUDIKATZEA** Orioko Hondartzako eskuhartze urbanistikorako areako 3.1 exekuzio unitateko Udal jabetzako partzelak besterentzeko kontratua. Partzelen besterentzearen prezioa honako hau da: 13.683.529,94 euro (BEZ barne). Adjudikazioaren baldintzak hauek dira:

a.- Orion 2003ko abenduaren 29a baino lehenago erroldatuta daudenek eta Orion jaioak direnek lehentasuna izango dute etxebizitzak erosteko, bi hilabeteko epean,



Oinarrizko Proiektua aurkeztu eta etxebizitzaren promozioa hasten denetik kontatzen hasita.

b.- Adjudikaziodunaren proposamenean jasotako etxebizitzaren gehienezko prezioa bete egin beharko da (2914,91 euro/m<sup>2</sup> eraikia, edo, berdina dena, 3536,46 euro/m<sup>2</sup> erabilgarria).

c.- Eskaintzan aurkeztutako exekuzio epeak bete beharko dira.

d.- Eskaintzan aurkeztutako kalitate eta materialak bete beharko dira.

e.- B aldagaia, azkenean aukeratu dena, Orioko Udalarekin adostuta gauzatu eta garatuko da.

**3.- ARGITARATZEA** erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

**4.- AHALMEN ZABALA EMATEA** Orioko alkate Mirari Arruabarrena Elizalderi Orioko Hondartzako eskuhartze urbanistikorako areako 3.1 exekuzio unitateko Udal jabetzako partzelak besterentzeko behar diren agiri pribatu eta publiko guztiak izenpetzeko Orioko Udalaren izenean, dagokion Jabetza Erregistroan guztiz inskribatu arte.

**5.- BETETZEA** baldintza ekonomiko-administratiboen pleguan ezarritako betebeharrak guztiak, udal erabaki hau behar bezala exekutatzeko.

**3.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HONDARTZAKO ESKUHARTZE URBANISTIKORAKO AREAKO (AIU) URBANIZAZIO LANAK ZUZENDU ETA IKUSKATZEKO AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA TEKNIKOA, SEGURTASUN ETA OSASUNEKO AZTERKETA ETA KALITATE KONTROLEKO PROGRAMAREN KONTRATUA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Lehiaketa publikoaren oinarriak 2003ko azaroaren 6ko 212. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira, eta lehiaketa publikoko epean bost lehiakide aurkeztu dira:

ARK GASTEIZ SL

ASMATU SL

USTARITZ SL

HIRIGINTZA SL

URGARI



Kontratazio mahaiak proposatu du Orioko Hondartzako eskuhartze urbanistikorako areako (AIU) urbanizazio lanak zuzendu eta ikuskatzeko aholkularitza eta laguntza teknikoa, segurtasun eta osasuneko azterketa eta kalitate kontroleko programaren kontratua honako honi adjudikatzea: Lurdes Ugarabe Olañeta, ARK GASTEIZ SLren izenean, berea baita puntuaziorik altuena lortu duen proposamena, baldintza ekonomiko-administratiboen pleguan ezarritako adjudikazio irizpideen arabera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, kontratazio mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

**1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA** 2003ko abenduaren 4an egindako plikak irekitzeko ekintza.

**2.-** Lurdes Ugarabe Olañetari, ARK GASTEIZ SLren izenean, **BEHIN BETIKOZ ADJUDIKATZEA** Orioko Hondartzako eskuhartze urbanistikorako areako (AIU) urbanizazio lanak zuzendu eta ikuskatzeko aholkularitza eta laguntza teknikoa, segurtasun eta osasuneko azterketa eta kalitate kontroleko programaren kontratua. Kontratuaren adjudikazio prezioa honako hau da, enpresa adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintza ekonomikoaren arabera: 68.400 euro (BEZ barne).

**3.- ARGITARATZEA** erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

**4.- BETETZEA** baldintza ekonomiko-administratiboen pleguan ezarritako betebeharrak guztiak, udal erabaki hau behar bezala exekutatzeko.

#### **4.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRIGUNE HISTORIKOA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIARI.**

Ramon Etxeberriak hartzen du hitza eta zera adierazten du: gai honetan interes pertsonala eta zuzena duela eta, beraz, ez duela parte hartuko gaiaren eztabaidan eta ondoko bozketan.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2003ko abenduaren 26an egindako Hirigintzako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko Udalak sustatutako eta Iñaki Etxeberria Izagirre arkitektoak eta Jose M. Abad Urruzola abokatuak idatzitako Orioko Hirigune Historikoa Eraberritzeko Plan Bereziari.



**2.-** Aldaketa hori **JENDAURREAN AGERTZEA** bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo Gipuzkoako hedapen handiko egunkarietako batean azkenik argitaratzen den egunaren hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

Epe horretan espedientea aztertu nahi duenaren eskueran izango da Udal honetako bulego teknikoan, astelehenetik ostiralera 8:30etatik 14:30etara, interesatuek Udalbatzarraren aurrean egoki irizten dituzten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

## **5.- BERRESTEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEKO HIRU ORDEZKARIEN IZENDAPENA UEMAKO BATZAR NAGUSIRAKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Alkateak 2003ko abenduaren 4ko 402/03 dekretuaren bidez egin zuen UEMAKo Batzar Nagusirako hiru ordezkarien izendapena eta orain Udalbatzarrari dagokio izendapen hori berrestea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [Aldeko 9 boto: Olariaga (EAJ), Cotado (EA), Ostolaza (EAJ), Sarasua (EAJ), Legarra (EA), San Sebastian (EAJ), Etxeberria (EAJ), Genoba (EAJ) eta Azkue (EA). Kontrako boto bat: Rodriguez Pousa (PSE-EE)]:

**BERRESTEA** Orioko Udaleko hiru ordezkarien izendapena UEMAKo Batzar Nagusirako. UEMAKo Batzar Nagusiko ordezkariak, hortaz, honako udalbatzakideak izango dira:

- 1.- Mirari Arruabarrena Elizalde, Orioko alkatea.
- 2.- Noemi Ostolaza Arkauz, Kultura, Hezkuntza eta Euskara batzordeko burua.
- 3.- Aurora Azkue Mujika, Kultura, Hezkuntza eta Euskara batzordeko kidea.

## **6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANA (2003-2006).**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kultura, Hezkuntza eta Euskara Batzorde Informatzaileak 2003ko abenduaren 10ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [Aldeko 9 boto: Olariaga (EAJ), Cotado (EA), Ostolaza (EAJ), Sarasua (EAJ), Legarra



(EA), San Sebastian (EAJ), Etxeberria (EAJ), Genoba (EAJ) eta Azkue (EA). Abstentzio bat: Rodriguez Pousa (PSE-EE)]:

**ONARTZEA** Orioko Euskara Biziberritzeko Plana (2003-2006), diktaminatutako txostenean jasotako terminoetan.

## 7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEKO EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kultura, Hezkuntza eta Euskara Batzorde Informatzaileak 2003ko abenduaren 22an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [Aldeko 9 boto: Olariaga (EAJ), Cotado (EA), Ostolaza (EAJ), Sarasua (EAJ), Legarra (EA), San Sebastian (EAJ), Etxeberria (EAJ), Genoba (EAJ) eta Azkue (EA). Abstentzio bat: Rodriguez Pousa (PSE-EE)]:

**ONARTZEA** Orioko Udaleko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana, diktaminatutako txostenean jasotako terminoetan.

## 8.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, LKS ENPRESAK EGINDAKO LANPOSTUEN BALORAZIOA ETA FUNTZIOEN ESKULIBURUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezeko boto):

**BEHIN BETIKOZ ONARTZEA** LKS enpresak egindako Lanpostuen balorazioa eta funtzioen eskuliburua.

## 9.- BAT EGITEA, EGOKI BADA, TURISMO BULEGOEN EUSKAL SAREAREKIN (ITOURBASK).

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2003ko abenduaren 18an egindako Gizarte ongizate, enplegu, sustapen ekonomiko, turismo, merkataritza eta senidetzeetako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako



proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

**1.- BAT EGITEA** Turismo Bulegoen Euskal Sarearekin (ITOURBASK).

**2.-** Eusko Jaurlaritzako Turismoa Sustatzeko zuzendariari **ESKATZEA** Orioko Udaleko Turismo Bulegoa ITOURBASK sareari atxikitzea, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak azaroaren 18ko 279/2003 dekretuan ezarritakoa betez.

**10.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 8/2003 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEARI. KREDITU ALDAKETA HONAKO MODALITATEAN EGIN DA: KREDITUEN TRANSFERENTZIA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2003ko abenduaren 23an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2003ko aurrekontu propioari dagokion 8/2003 zenbakidun Kreditua Aldatzeko Espedienteari. Kreditua aldatzeko espedientearen kopurua 94.823,57 eurokoa da. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kredituen transferentzia.

**2.-** Espediente hori **JENDAURREAN JARTZEA**, ondoko lege-arauetan ezarritakoa betez: Toki Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 158. artikulua eta 150. artikulua. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

**Erakutsita dagoen lekua:** Kontuhartzailletza.

**Aztertze eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea:** hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontatzen hasita.

**Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:** Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka bozkatu zuten udalbatzakideek.

**Inpugnatzeko arrazoiak:** Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren arau-haustea.





**Erreklamazioak aurkezteko:** udaletxeko erregistro nagusian, bulego orduetan.

Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Kreditua Aldatzeko Espediente hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

### **11.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2004KO AURREKONTU OROKORRAREN PROIEKTUA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2003ko abenduaren 23an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2004ko aurrekontu propioari. Onartutako aurrekontuaren laburpena, kapituluka, hau da:

#### **DIRU-SARRERAK**

| <b>Kapitulua</b>                          | <b>Azalpena</b>                         | <b>€</b>         |
|-------------------------------------------|-----------------------------------------|------------------|
| 1.                                        | Zerga zuzenak.....                      | 520.225          |
| 2.                                        | Zeharkako zergak .....                  | 480.800          |
| 3.                                        | Tasak eta bestelako diru-sarrerak ..... | 2.489.204        |
| 4.                                        | Transferentzia korronteak .....         | 2.055.324        |
| 5.                                        | Ondarezko diru-sarrerak .....           | 277.730          |
| 6.                                        | Inbertsio errealeen enajenazioa .....   | 75.106           |
| 7.                                        | Kapital transferentziak .....           | 2.856            |
| 8.                                        | Finantza aktiboak .....                 | 2.704            |
| <b>2004KO DIRU-SARRERAK GUZTIRA .....</b> |                                         | <b>5.903.949</b> |

**GASTUAK**

| <b>Kapitulua</b>                   | <b>Azalpena</b>                                          | <b>€</b>         |
|------------------------------------|----------------------------------------------------------|------------------|
| 1.                                 | Pertsonalaren ordainsariak.....                          | 1.887.979        |
| 2.                                 | Ondasun korronteak eta zerbitzuak.....                   | 1.579.874        |
| 3.                                 | Finantz gastuak-Interesak.....                           | 38.100           |
| 4.                                 | Transferentzia korronteak.....                           | 520.840          |
| 6.                                 | Inbertsio errealak.....                                  | 1.805.156        |
| 9.                                 | Finantza pasiboen aldaketa (maileguen amortizazioa)..... | 72.000           |
| <b>2004KO GASTUAK GUZTIRA.....</b> |                                                          | <b>5.903.949</b> |

**2.- ONARTZEA** hurrengo bilkuran Udalaren 2004ko aurrekontu propioa exekutatzeko oinarriak.

**3.-** Udalaren 2004ko aurrekontu propioa **JENDAURREAN JARTZEA**, ondoko lege-arauetan ezarritakoa betez: Udal Erregimenari buruzko oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1/1985 Legearen 112.3 artikulua eta Tokiko Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 150.1 artikulua. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

**Erakutsita dagoen lekua:** Kontuhartzailletza.

**Aztertze eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea:** hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontatzen hasita.

**Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:** Tokiko Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka botoa eman zuten udalbatzakideek.

**Inpugnatzeko arrazoiak:** Tokiko Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren infrakzioa.

**Erreklamazioak aurkezteko:** udaletxeko sarrera-erregistroan.

Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio-epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Udalaren 2004ko aurrekontu propio hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.



Jesus Rodriguezek hartzen du hitza eta, PSE-EE-PSOEren izenean, zera adierazten du: Orioko Arraun Elkarteak jasotzen dituen diru laguntzak erabat desorekagarriak direla eta Udalaren posibilitate errealean gainetik daudela. Bere ustetan, diru laguntza horiek 25 edo 30 milioi pezetakoak dira, hau da, udal aurrekontuaren % 3 Ondorioz, bere ustetan, Udalak aurrerantzean beste tratamendu bat eman behar dio gai honi, beharrezkoa den oreka lortzeko.

Eugenio Cotadok erantzuten dio datorren hilaren erdialdera Kiroletako batzorde informatzailearen bilkura berezi bat antolatuko duela, aipatutako gaia eztabaidatzeko eta dagozkion irtenbideak bilatzeko.

## **12.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALEKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERREDA 2004RAKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2003ko abenduaren 23an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

**ONARTZEA** Udaleko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda 2004rako.

## **13.- ESKARIAK ETA GALDERAK**

Ez ziren izan.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA**

**IDAZKARIA,**